

Tretzaontzi eta lantegi-ontzientzako Higiene Jardunbide Egokien Gidaliburua 18/02/15

Legatzen, Zefalopodoen eta Askotariko Espezieen Ontzi Izoztailen Ekoizleen Elkartek (OPPC-3) **Higiene Jardunbide Egokien Gidaliburu** bat argitaratu du lantegi-ontzi izoztaileentzat eta tretzaontzi izoztaile eta mistoentzat. Gidaliburu hori erabili ahal izango dute Arriskuen Analiaren eta Kontrol Puntu Kritikoaren eskuliburuak egiteko oinarri gisa.

Gidaliburuaren helburua da armadoreei eta tripulatzailerei zenbait jarraibide ematea arrantzatutako produktuak manipulatzeko jardunbideak hobetzeko eta azken produktuaren kalitatea hobetzeko neurriak ezartzeko. Horretarako, gidaliurua produktuen **kutsadura-arriskuak identifikatzen eta ebaluatzen** ditu maila fisikoan, kimikoan eta biologikoan, eta kutsadura hori **kontrolatzeko neurri prebentibo eta zuzentzaileak** ezartzen ditu, produktuak kalterik eragiten ez duela bermatzeko.

Gidaliburuan zehazten da nola harrapatu, manipulatu, ekoitzi, landu, biltegiatu eta deskargatu behar diren arrainak eta giza kontsumorako arrantza-produktuak. Bertan jasotakoa aplikatu beharko dute Ipar eta Hego Atlantikoan honako hauek arrantzatzen dituzten lantegi-ontzi izoztaileek: halibut beltza, arrain pelagikoak, sakoneko kabrarroka, legatza, abadira arrosa, lotxa, isats-legatza, pota, txipiroia, otarrainxka, etab.; baita beste hauek harrapatzen dituzten tretzaontzi izoztaileek ere: ezpata-arraina, marrazo muturluzea, tintoleta, atuna, belarraina, marlina, etab.

Gidaliburu honetako jarraibideak behar bezala ezarriz gero, elikagaien segurtasunarekin loturiko arazoei azkar eta modu eraginkorrean aurre egin ahal izango zaie eta produktuok manipulatu dituzten langileek hobeto jakingo dute beren lanak zer-nolako garrantzia daukan elikagaien segurtasunerako.

Tretzaontzi eta lantegi-ontzi izoztaileentzako Higiene Jardunbide Egokien Gidaliburua
ELIKA : Granja Modelo, 2/0 . 01192 . Arkautu (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
(https://www.sergas.es/Saude-publica/Documents/4922/GUIA_DE_BUENAS_PRACTICAS_DE_HIGIENE.PDF)
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)